

LEINUAK ETA ERRIAK

Erriak apurka osotzen joan dira edestian eta asieran leiñuak edo sendi zabalak izan ziranak zergaitik edo agaitik alkartu egin ziran eta erri aundi eta sendo bat sortu.

Esaterako, arabiarrek an euren errietan bizi ziran eta Ala'ren izenean Mahoma'k berba egin eutsenean, batu egin ziran eta orduan ezaguna zan mundu osoan bildurra zabaldu eban erri sendo eta jakituna osotu eben.

Gu euskaldunok be, Erroma'tarrak ona urreratu baiño lenago, leiñu edo sendi zabaletan bizi giñan eta eurak be orrelan ikusi ginduezan. Lau leiñu agertzen dabez: Ner-bion errekearen sartalderantz autrigoia, Ibaizabal be esaten jakon erreka orretatik Deba erreka Karistioak, Deba ibaitik Bidasoa'ra barduloak eta ortik iparralde-rantz baskoiak (oneik gaur Laburdi, Benabarra eta Zube-roa'n bizi diranak dira).

Leiñu oneik barru-bizitza sendoa ta demokratikoa euken, etxeko jauna oñarri dala eta batzarretan erabagiak artzen ebezala, baiña, zori txarrez or geratu ziran, iñok ez ebazan bultzatu erri baten erakunde politikoa artzera. Zazpi laterri txiki izatean geratu ziran.

Baiña, ai ene! erri txikiak arriskura sartu ziran, ingu-ruko erri aundiak gertu egozan olako erri txikiak iruntzu-teko, batez be geroago sortu ziran Frantzia ta España.

Batzutan guda eginda, esaterako Naparroa'n, beste batzutan ezkontzaren bidez, esaterako Bizkaia ta Be-naparroa, beste batzutan itun baten bidez, Gipuzkoa ta Araba, inguruko erri aundi orreik iruntzi gura izan gaitue eta gaur be asmo orretan jarraitzen dabe.

Gure edestia ortik begiratuta, ori da izan be benetako edestia, laster onartzen da Ibarretxe Lendakariaren eson-dapena: Lenago izan gendun askatasuna lortu, lenengo Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba'rentzat eta gero itunen bidez Euskalerra osoa barriro sortzera jo, eskualde bakoitxak nai dauan askatasun-mailla lortzen dauala.

Baiña gure edestia ez dabe ikasi España'tarrak eta Frantzia'rarak. Guk eurak beartuta ikasi gendun, baiña eurak gurea ezelan be ez. Orregaitik ez da errez alkar ulertzea, baiña bidea bakarra da.

Elduko al gara laster eldu bear dogun maillara edo tokira.

OLAZAR'tar Martin'ek.

**ZORIONTSUA IZATEKO BESTE
BATZUK IRAINTZEN DAUZANA,
ONEIK BE ZORIONTASUNAREN
BILLA DABELTZANEAN, ORI EZ DA
SEKULA IZANGO ZORIONEKO.
BUDA'K**

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (amazortzi euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be ida-tzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!